

INFORMAZIO OHARRA

Ehun bat zubigilek Hezkuntza Sistemaren etorkizunari buruz eztabaidatuko dute

- *Eusko Ikaskuntzak Euskal Herriko hezkuntza, kultura, sorkuntza, gizarte eta ekonomia arloetako profesionalak bilduko ditu XXI. menderako hezkuntzaren balio, orientazioa eta antolamendua jorratzeko.*
- *‘Hezkuntza sistema: etorkizuna elkarrekin lantzen’ programa 2018an egindako Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresuan jaio zen.*

Donostia, 2021eko irailaren 7a. Datorren larunbatean, irailaren 11n, Donostian (Eureka! Zientzia Museoa, 9: 30etik aurrera) "Hezkuntza Sistemaren etorkizuna elkarrekin lantzen" programaren lehen saioa egingo da. Eusko Ikaskuntzak bultzatutako programa da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, "Etorkizuna eraikiz" programaren bidez.

Euskal Autonomia Erkidegotik, Nafarroako Foru Erkidegotik eta Iparraldeko Mankomunitatetik datozen belaunaldi, diziplina eta sentsibiltate ezberdinetako ehun bat zubigile bilduko dira foroan. Euskal Herrian hezkuntza sistema komun bat eraikitzeko arazoak, etorkizuneko agertokiak eta lehentasunak elkarrekin identifikatzea izango dute xede. Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresuan, 2018an, proposamen hori jaso zen eta ondorioetan honako hau esan zen: "Euskal lurraldeen arteko lankidetzak-sistemak sortzea hizkuntzaren, kulturaren eta hezkuntzaren esparruan", eta "Euskal hezkuntza-sistemaren berrikuntzaren alde egitea, epe luzerako plangintza bat eginez".

Hilaren 11ko foroaren egitarauak hiru ardatz ditu:

- . *Hezkuntza, aniztasuna berdintasunean: zer balio eta helburu kolektibo garatu behar ditu gure hezkuntza-sistemak?*
- . *Hezkuntza, ezagutza jendartean: zer egin behar du hezkuntzak gizarte gisa ditugun erronkei aurre egiteko?*

. *Hezkuntzaren antolamendua*: hezkuntza-sistemak zer egituraketa eta funtzionamendu-modu behar ditu erronka horiei erantzuteko? Zein gobernantza-eredutan?

Saioak EHUko Parte Hartuz master eta ikerketa taldearekin, Aztiker Ikerlanean eta Elhuyarrekin elkarlanean garatutako metodologia parte-hartzaileari jarraituko dio.

Lan-programaren arkitektura modu partekatuan zehaztu ondoren, urriaren 22an " Hezkuntza Sistemaren etorkizuna elkarrekin lantzen" lehen sinposioa garatuko da, gai garrantzitsu horren inguruan konprometituta eta sentibilizatuta sentitzen diren hezkuntza-komunitateko profesionalak parte har dezaten. Hitzordu horretan, larunbateko saioan identifikatutako funtsezko gaietan sakonduko dute.

Informazio gehiago [hemen](#).

NOTA INFORMATIVA

Un centenar de personas debatirán sobre el futuro del Sistema Educativo

- *Eusko Ikaskuntza reúne a profesionales de los ámbitos educativo, cultural, creativo, social y económico de los territorios vasco-navarros para abordar los valores, la orientación y la organización de una educación para el siglo XXI*
- *El programa ‘Sistema educativo: construir el futuro en común’, surge del XVIII Congreso de Estudios Vascos celebrado en 2018.*

Donostia-San Sebastián, 7 de septiembre de 2021. El próximo sábado, 11 de septiembre, en Donostia-San Sebastián (Eureka! Zientzia Museoa, a partir de las 9:30 h.), tendrá lugar la primera sesión del programa “Diseñando conjuntamente el futuro del Sistema Educativo”, que impulsa Eusko Ikaskuntza con apoyo de la Diputación Foral de Gipuzkoa a través del programa “Etorkizuna eraikiz”.

El foro reunirá a un centenar de personas de diferentes generaciones, disciplinas y sensibilidades, provenientes de la Comunidad Autónoma Vasca, Comunidad Foral de Navarra y de la Mancomunidad de Iparralde, con el objetivo de identificar conjuntamente las problemáticas, los escenarios de futuro y las prioridades para la construcción de un sistema educativo común en el ámbito vasco-navarro. Esta fue una de las propuestas elaboradas durante el XVIII Congreso de Estudios Vascos celebrado en 2018, en cuyas conclusiones se llamó a “crear sistemas de colaboración entre los territorios vascos en el campo de la lengua, de la cultura y de la educación”, así como apostar por “la innovación del sistema educativo vasco, elaborando una planificación a largo plazo”.

El programa del foro del día 11 se estructura en torno a tres ejes:

- . *Educación, diversidad en igualdad: ¿qué valores y objetivos colectivos debe desarrollar nuestro sistema educativo?*
- . *La educación en la sociedad del conocimiento: ¿qué papel debe jugar la educación para afrontar los retos que tenemos como sociedad?*
- . *Organización de la educación: ¿qué estructuración y formas de funcionamiento requiere el sistema educativo para responder a esos desafíos? ¿En qué modelo de gobernanza?*

La sesión seguirá una metodología participativa desarrollada en colaboración con el master y el grupo de investigación Parte Hartuz de

la UPV/EHU, con Aztiker Ikergunea y con Elhuyar.

Una vez perfilada de forma compartida la arquitectura del programa de trabajo, el 22 de octubre se desarrollará el primer Simposium “Diseñando conjuntamente el futuro del Sistema Educativo” abierto a la participación de profesionales de la comunidad educativa que se sientan comprometidas y sensibilizadas ante esta importante cuestión. En dicha cita se profundizará en las cuestiones clave identificadas en la sesión de este sábado.

Más información [aquí](#).